BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN ETA LURRALDE ANTOLAMENDU SAILA

5002

EBAZPENA, 2008ko apirilaren 30ekoa, Ingurumeneko sailburuordearena, igogailuak, karga-jasogailuak, eskailera mekanikoak eta antzekoak fabrikatzeko jarduerarako ingurumeneko baimen bateratua emateko dena, Hernaniko (Gipuzkoa) udalerrian, Orona SK enpresak sustatua.

AURREKARIAK

2006ko abenduaren 27an, Orona SK enpresak Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailari ingurumeneko baimen bateratua ematea eskatu zion, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legeak xedatutakoaren arabera, Hernaniko (Bizkaia) udalerrian igogailuak, karga-jasogailuak, eskailera mekanikoak eta antzekoak fabrikatzeko jarduerarako. Eskaerarekin batera ondorengo agiri teknikoak erantsi ziren:

- «Oinarrizko proiektua: memoria eta planoak».
- «Oinarrizko proiektua: eranskinak».
- «Laburpen ez-teknikoa».
- «B agiria: 1254/1999 Errege Dekretuari dagokion gai arriskutsuen adierazpena».

Erreferentziako baimena eskatzerakoan, Orona SK enpresak, besteak beste, ondoko baimenak zituen:

- Irekitze Baimena, 2003ko urtarrilaren 31koa. Zituen instalazioetan egindako zabaltzeen aurrean, berriz ere Jarduera Baimena eskatu zaio Hernaniko Udalari baina oraindik ez da ebatzi.
- Isurketetarako baimena, Añarbeko Ur Partzuergoak 2004ko ekainaren 22an emandakoa, 2000ko azaroaren 20an emandako isurketa-baimena aldatu eta zabaltzen duena.
- Ingurumen Sailburuordetzak Hondakin Arriskutsuen Ekoizleen Jarduera Baimena, 2002ko urriaren 18koa eta aipatu organoak 2001eko otsailaren 16an eta 22an emandako baimenak aldatzen dituena.
- Ingurumen Sailburuordetzak Hondakin Geldoen Ekoizleen Erregistroan emandako inskripzioa 2000ko ekainaren 15ean.
- Ingurumen Sailburuordetzak atmosfera kutsatu dezakeen instalazioaren baimena 2003ko otsailaren 26koa eta 2001eko martxoaren 21ekoa.

2007ko urtarrilaren 30ean, Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzak prozeduran eskuhartzea duten hainbat organori txostenak eskatu zizkion, Ingurumen Organoaren bidez proiektua jendaurrean jartzeko izapidetzea adosteari dagokionez. Hain zuzen ere, txostenak eskatu zitzaizkien honako organo hauei: Hernaniko udala, Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila eta Añarbeko Uren Mankomunitatea.

2007ko martxoaren 13an, Ingurumen Organoak agiri osagarriak eskatu zizkion sustatzaileari; espedientea 2007ko azaroaren 8an osatu zen.

Aurkeztutako agiriak nahikoa zirela egiaztatu ondoren, Ingurumeneko sailburuordeak 2007ko azaroaren 14an emandako Ebazpenaren bidez, jendaurrean jarri zen 30 egun balioduneko epean, Orona SK enpresak sustatutako proiektua, egoki iritzitako alegazioak aurkezteko. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian nahiz Arabako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, bietan 2007ko abenduaren 3an. Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko hiru egunkaritan argitaratu zen 2007ko abenduaren 2an, eta proiektuak hartuko duen eremuaren ondoko auzokide bakoitzari jakinarazpena bidali zitzaion.

Jendaurrean jartzeko izapidetze-epea bete ondoren, alegazio-idazkirik aurkeztu ez zela egiaztatu zen.

Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 17 eta 18. artikuluetan xedatutakoa betez, 2008ko urtarrilaren 14an Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzak txostenak eskatu zizkien Hernaniko Udalari, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari eta Añarbeko Uren Mankomunitateari, espedientean ageri den emaitzarekin.

2008ko urtarrilaren 14an, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 20. artikuluan xedatutakoa betez, espediente osoa Orona SKenpresaren esku utzi zen, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak egindako ebazpen-proposamena gehituta.

2008ko martxoaren 5ean sustatzailearen jakinarazpena jaso zen. Jakinarazpen horretan hainbat ohar egiten ziren Ingurumeneko Baimen Bateratuaren ebazpen-proposamenari lotuta.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 1. artikuluan xedatutakoaren arabera, lege horren xedea da atmosferaren, uraren eta lurzoruaren kutsadura saihestea edo, hori ezinezkoa denean, kutsadura hori gutxitu eta kontrolatzea; eta hori lortzeko, ingurumen osoaren babes-maila altua helburutzat harturik, kutsadura prebenitu eta kontrolatzeko sistema integratu bat ezartzea.

Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea garatu eta burutzeko Erregelamendua onartzen duen apirilaren 20ko 509/2007 Errege Dekretuaren 3. artikuluan xedatutakoarekin bat eginez, baimen honetan sartzen dira ekoizpen-elementu eta -lerro guztiak; 16/2002 Legearen 1. eranskinean aipatzen ez diren arren, lege hori aplikatu beharreko esparruko jardueren instalazioetan gauzatzen dira eta jarduera horrekin zerikusia dute.

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 9. artikuluak ezartzen duena betez, ingurumeneko baimen bateratua behar dute 1. eranskinean aipatzen diren jardueraren bat garatzen duten instalazioak eraiki, muntatu, ustiatu, lekuz aldatu nahiz funtsezko beste aldaketaren bat egiteko. 11. artikuluaren arabera, baimen honen oinarrizko helburua baldintzak ezartzea da, araua, berau aplika daitekeen instalazio guztietan betetzen dela bermatzeko; horretarako, baimena emateko parte hartuko duten Herri Administrazio desberdinen artean koordinatuta izango den prozedura bat erabili nahi da, izapideak erraztu eta partikularrek ordaindu beharreko kargak gutxitzearren. Era berean, indarrean dagoen araudiaren araberako ingurumeneko administrazio-baimen guztiak egintza administratibo bakar batean bildu nahi dira. Orona SK enpresaren kasuan, baimen hauek guztiak behar ditu: hondakin arriskutsu eta ez-arriskutsuen sortzaileak behar dituen baimenak; saneamendu-sare orokorrera isurketak egiteko baimena; ingurumen izaerako beste zehaztapenen artean, atmosferaren kutsadurari dagozkion baimenak eta lurzoruaren kutsadura prebenitu eta hari aurre hartzeari dagozkionak.

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 29. artikuluan xedatutakoaren arabera, ingurumeneko baimen bateratua emateko prozedurak Jarduera Gogaikarri, Osasungaitz, Kaltegarri eta Arriskutsuei buruzko azaroaren 30eko 2414/1961 Dekretuak aurreikusten duen jarduera sailkatuetarako udal-baimenaren prozedura ordezkatzen du; ez du ordezkatzen, ordea, udal-agintaritzak emango duen behin betiko ebazpena. Ondorio horietarako, ingurumeneko baimen bateratua udal-agintarientzat loteslea izango da, baldin eta lizentzia ukatzeko bada edota neurri zuzentzaileak ezartzeko bada; baita aipatu arauaren 22. artikuluan jasotako ingurumen-alderdiei buruzko aipamena egiten bada ere. 29. artikulu horretan aipatzen denez, goiko guztiak ez ditu kaltetuko autonomia-erkidego bakoitzean jarduera sailkatuei aplikatzekoak diren gainerako arauak. Adierazitako aginduak aplikatuz, Orona SKenpresaren ingurumeneko baimen bateratuaren baitan daude Euskal Herriko Ingurumena babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrean aurreikusitako izapide guztiak.

Azkenik, instalazioak gehienez isur ditzakeen gai kutsagarrien balioak eta ingurumena, oro har, ahalik eta gehien babesteko ustiapenerako ezarriko zaizkion beste baldintza batzuk zehazte aldera, Ebazpen hau egiterakoan kontuan izan dira teknika erabilgarri egokienen erabilera eta aplika dakiokeen alorreko legerian ezarritako neurriak eta baldintzak. Zehazki, Europako Batzordeak Azal Tratamenduaren sektorerako eginiko erreferentzia-dokumentua (BREF) (Reference Document on Best Available Techniques for the Surface Treatment of Metals and Plastics), 2006ko abuztukoa hartu da kontutan. Gainera, sektoreko araudiei dagokienez, kasu honetan aplikatzekoak dira bereziki jarduera jakin batzuetan disolbatzaileen erabilerak eragindako konposatu organiko hegazkorren emisioak mugatzeko baldintzei buruzko urtarrilaren 31ko 117/2003 Errege Dekretua.

Espedienteko txostenak aztertu ondoren, ebazpen-proposamena sinatu eta Orona SK enpresak sustatutako proiektuak bete beharreko baldintzak ezarri ziren.

Goian adierazitako izapideak amaitu dira, eta Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 20. artikuluan jasotzen den entzunaldi-izapidea bete da. Ildo horretan, kontuan hartu behar da organo honi atxikitako zerbitzu teknikoek sustatzaileak izapidetze honetan egindako oharrak aztertu dituztela, eta guztiak kontuan hartu direla ebazpen hau lantzeko orduan.

Organo hau da ingurumeneko baimen bateratu hau emateko eskuduna, aipatutako legearen 13. artikuluan eta Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren egitura organikoa ezartzen duen urriaren 25eko 340/2005 Dekretuaren 9. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Ondorengo araudia ikusi da: Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak 2008ko otsailaren 11n emandako ebazpen-proposamena; Euskal Herriko Ingurumena Babesteari buruzko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra; Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea; Ingurumenaren gaineko Eraginaren Ebaluazioari buruzko ekainaren 28ko 1302/1986 Legegintzako Errege Dekretua, maiatzaren 8ko 6/2001 Legeak aldatu zuena; Legea burutzeko araudia onartzen duen irailaren 30eko 1131/1988 Errege Dekretua; Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren egitura organikoa ezartzen duen urriaren 25eko 340/2005 Dekretua; Herri Administrazioen Araubide Juridikoa eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legea, eta aplika daitekeen gainerako araudia,

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Hernaniko (Gipuzkoa) udalerriko Lastaola auzoan z/g egoitza soziala duen eta IFK zenbakia: F-20025318 duen Orona SK enpresari ingurumeneko baimen bateratua ematea, helbide horretako instalazioetan berunezko perdigoiak diseinatu eta fabrikatzeko, ebazpen honen Bigarren atalean ezarritako baldintzekin.

Jarduera, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 1. eranskineko 2.6 kategorian sartuta dago, «Prozedura elektrolitiko edo kimikoaren bidez metalen eta material plastikoen azal-tratamendurako instalazioak, tratamendura bideratuta erabilitako kubeta edo lerro guztien bolumena 30 m^3 baino handiagoa denean» izenekoan.

Orona SK enpresak ondoren deskribatuko den jarduerarako eskatzen du ingurumeneko baimen bateratua:

Instalazioa Lastaola auzoko z/g egoitzan kokatzen da Hernaniko udalerri gipuzkoarrean.

Urteko ekoizpena 13.629 igogailu eta karga-jasogailukoa da.

Prozesuaren deskribapena:

Erabilitako energiak.

Bi motako energiak erabiltzen ditu jarduerak:

● Energia elektrikoa: energia elektrikoa makinetan eta argiztapenean erabiltzen da bereziki. Instalazioak energia elektrikoa sortzen duen instalazio fotovoltaikoa du Iberdrola Sarera konektatuta. 4386 Kwh inguru kontsumitzen dira.

● Gas naturala: Koipegabetze-bainua berotzeko erabiltzen da, bai eta lehortze-labeko erregailuan eta solairu desberdinetako berogailuan erregai gisa ere. Urtean 285000 m^3 inguru kontsumitzen dira.

● Instalazio termikoa: Plaka termikoak ditu eguzki-energia aprobetxatzeko. Dutxa eta aldageletako urak berotzeko erabiltzen da. Urtean 4934 KWh sortzen dira.

Prozesu-teknologia aplikatua.

Orona SK enpresaren fabrikazio-instalazioa «lantegiak» izeneko ekoizpen-unitateetan antolatuta dago (balioen araberako sortze-unitateak) eta horietako bakoitzak igogailuaren zati bat eraikitzen du. Lantegiak honako hauek dira:

● Xasisa: Kabinaren xasisa, kontrapisuaren xasisa eta igogailuetarako armadurak fabrikatzeko lanak egiten dira bertan.

● Kabinak: Bertan igogailuetarako kabinak eraikitzeko lanak egiten dira.

● Maniobrak: Maniobra-koadroak, kabina-koadroak, pisuetako botoiak, aginte-taulak eta seinaleztapenak.

● Ateak: Igogailuetarako ate automatikoen fabrikazioa.

Koipegabetze-, fosfatatze- eta pintaketa-lerroa ditu.

● Makinak: Makinen fabrikazioa eta igogailuetarako hertsagailuak.

● MHU (Material-hornidurarako unitatea): Gainerako lantegiek egindako azpi-multzo guztiak hartu eta dagozkien bezeroei bidalketa zuzena kudeatzea.

● HHU (Harrera-hornidurarako unitatea): Elementu guztiak birjartzea.

● I+M (Ingeniaritza eta instalazioen mantentze-lanak): Gainerako lantegiak instalazio berriak erosterakoan aholkatzea, bai eta instalazioen mantentze-lanen inguruan ere.

Orona SKenpresaren ekoizpen-prozesua honako operazioez osatzen da:

1.– Mekanizazioa: Txapa galvanizatua eta altzairu herdoilgaitza makina eta eraldaketa-zentro desberdinetan, gillotinan, puntzonaketan, tolestatzeko makinetan, prentsetan eta zerretan prozesatzen dira eta beraz, igogailuko azpiegiturarako beharrezko diren piezak lortzen dira.

2.– Azal tratamendua: Piezak, pintatu aurretik, hainbat upeletatik pasatzen dira ezaugarri egokiak lortzeko. Ondoko operazioak egiten dira: koipegabetze alkalinoa, fosfatatzea eta garbiketa.

3.– Pintatzea: Orona SK enpresak bi pintatze-sistema ditu:

a) Murgiltze bidezko pintatzea: Piezak pintura-bainuan sartzen dira pintatzeko. Ondoren, lehortze-labean lehortzen dira.

b) Eskuzko pintatzea: Pintura-kabinetan egiten da ur-errezelekin.

4.– Piezak pintatzen direnean jario, polimerizatze eta lehortzera eramaten dira.

Piezei dagokien azal-tratamendua aplikatzen zaienean, ekoizpen-prozesua jarraitzen dute hainbat lantegitan barrena eta aurrez adierazitako ekoizpen-prozesua aplikatzen zaie.

Atmosferara eta uretara eginiko isuriak.

Orona SK enpresak atmosferara isurtzen duten 10 foku ditu eta prozesu desberdinen arabera sailkatzen dira:

● Koipegabetzea: Koipegabetze-upelaren erregailua erauzteari dagokion fokua du.

● Fosfatatzea: Fosfatatze-bainua erauzteari dagokion fokua du.

● Pintatzea: Honela banatzen diren zortzi foku ditu:

○ Xasis lantegiko bi pintatzeko kabinei dagozkien bi erauzte-foku. Kabinak lantegian pintatzeko kabinako hirugarren erauzte-fokua dago.

○ Kabinak lantegian kolatze-prozesuko erauzteari dagokion fokua.

○ Lehortu aurreko prozesuari, lehortzeari (bi foku desberdindu) eta adierazitako lehortze-labeei dagokien erregailuari dagozkien lau foku.

Orona SK enpresan uretara honako isuriak egiten dira:

● Lastaola eraikineko isuriak: Isuria zuzenean Añarbeko Ur Partzuergoko kolektorera egiten da. Bi fluxu nagusiz osatua dago:

○ Komunetako ur sanitarioak.

○ Industriako hondakin-urak, era berean hainbat fluxuz osatuta (koipegabetzearen hondakin-ur garbitua eta koipegabetzearen fosfatatze-lerroa, fosfatatzea eta ateen pintatzea).

● Epele eraikineko isuriak: Isuria zuzenean Añarbeko Ur Partzuergoko kolektorera egiten da. Izaera sanitarioko fluxu bakarraz osatua dago (gorotzak).

● Euri-uren isuriak: Bi isurtze desberdin daude, eraiki bakoitzari dagozkienak. Biak zuzenean ibilgura isurtzen dira.

Orona SK enpresak aurkeztutako proiektuak teknika erabilgarri onenak (TEO) izan daitezkeen ondorengo neurriak barneratzen ditu: ISO 14.001 ezarria; azaleko tratamendu-lerroaren

osotasuna hartzen duen zuloa du, sor daitezkeen isuriak jasoz; produktu kimikoen biltegiratzea zola iragazgaitzaren gainean dago; kako formako bastidoreak ditu arrasteak gutxitzeko eta korrontearen eraginkortasuna maximizatzeko; bainuen tenperaturaren kontrola termostato bidez; bainuen osaketaren inguruko eguneroko kontrola; garbiketa-bainuetako ur-emariaren kontrol automatikoa; airea hartu eta erauzteko sistema du azaleko tratamendu-lerro osoan.

Bigarrena.– Orona SK enpresak Hernaniko udalerrian sustatutako jarduera ustiatzeko ondorengo baldintzak eta eskakizunak ezartzea.

A) Administrazioarekiko harremanez arduratuko den pertsonaren gainean Ingurumen Sailburuordetzari eman dizkion datuetan aldaketarik balego, Orona SK enpresak aldaketa horien berri emango du.

B) Neurri babesle eta zuzentzaileak sustatzaileak Ingurumen Sailburuordetza honetan aurkeztu dituen agirietan aurreikusi bezala burutuko dira, indarrean dagoen araudiaren arabera eta ondorengo ataletan ezarritakoari jarraituz:

B.1.– Instalazioaren funtzionamendurako baldintza orokorrak.

B.1.1.– Airearen kalitatea babesteko baldintzak.

B.1.1.1.– Baldintza orokorrak.

Orona SK enpresak Hernaniko udalerrian duen instalazioa ustiatzean egingo diren isuri atmosferikoek ez dituzte ebazpen honetan ezarritako muga-balioak gainditukо.

Prozesuan zehar atmosferara isurtzen den gai kutsatzaile oro bildu eta ihesbide egokienean zehar kanpora bideratuko da, behar denean, gai kutsatzaileen ezaugarrien arabera diseinatutako gasak arazteko sistema batetik igaro ondoren.

Neurriak hartuko dira ustekabean gai kutsatzailerik ez botatzeko, eta botatzen direnak giza osasunerako nahiz gizartearen segurtasunerako arriskutsuak izan ez daitezen. Gas-efluenteak tratatzeko instalazioak behar bezala ustiatu eta mantenduko dira, efluenteen tenperatura– eta konposizio-aldakuntzei modu eraginkorrean aurre egiteko. Era berean, ahalik eta gehien murriztuko dira instalazio horiek gaizki dabiltzan edo geldirik dauden aldiak.

B.1.1.2.– Fokuak identifikatzea. Katalogazioa.

Orona SK enpresaren instalazioak ondorengo fokuak ditu, atmosfera babestearen arloan indarrean dagoen araudiaren arabera katalogatuta:

Foku zk.	Foku-kodea	Isurtze-fokuaren izena	Garaiera (m)	Barne-diametroa (m)	Katalogazioa	UTM koordenatuak	
					Taldea	X	Y
1	20000539-01	AA1 Pintaketa	8	0.45	B	585522	4790335
2	20000539-02	AA2 Pintaketa	8	0.59	B	585506	4790351
3	20000539-03	AA3 Pintaketa	12	0.37	B	585591	4790171
4	20000539-04	AA4 Kolatzea	12	0.37	C	585577	4790158
5	20000539-05	AVA2 Fosfatatze-bainuko xurgapena	6	0.44	C	585542	4790291
6	20000539-06	CIP1 Koipegabetze-upeleko erregailua	6	0.44	C	585542	4790291
7	20000539-07	F10 1 Labeko ateen haizagailua	10		B	585571	4790295
8	20000539-08	F11 2 Labeko ateen haizagailua	10		B	585574	47900297
9	20000539-09	F12 3 Labeko ateen haizagailua	10		B	585572	47900294
10	20000539-10	F13 4 Labeko ateen haizagailua	10		B	585575	47900295

Sustatzaileak 7, 8, 9 eta 10. fokuen barneko diametroa jakinaraziko du.

Gainera, KOH isuriak sortzen dira fosfatatzeari lotutako lerro eta prozesuetan, xasisaren pintatzea pistola aerografikoarekin, piezak pistolarekin pintatzea kabinan paperezko iragazkiarekin, piezak kolatzea pistola edo mahai gaineko brotxaren bidez, 250 m2-ko guztizko azaleraren gainean etenkako erregimenean.

B.1.1.3.– Isurtzeko muga-balioak.

Fokuak	Substantziak	Isurtzeko muga-balioak
1	KOHak KOG gisa neurtuak	75 mgC/Nm^3
	Guztizko partikulak	150 mg/Nm^3
2	KOHak KOG gisa neurtuak	75 mgC/Nm^3
	Guztizko partikulak	150 mg/Nm^3
3	KOHak KOG gisa neurtuak	75 mgC/Nm^3
	Guztizko partikulak	150 mg/Nm^3
4	KOHak KOG gisa neurtuak	150 mgC/Nm^3
	Guztizko partikulak	150 mg/Nm^3
5	Guztizko partikulak	30 mg/Nm^3
	KOHak KOG gisa neurtuak	150 mgC/Nm^3
6	Karbono monoxidoa (CO)	500 ppm
	Nitrogeno oxidoak NO2 (NOx) gisa neurtuta	300 ppm
7	Karbono monoxidoa (CO)	500 ppm
	Nitrogeno oxidoak NO2 (NOx) gisa neurtuta	300 ppm
	KOHak KOG gisa neurtuak	50 mgC/Nm^3
8	Karbono monoxidoa (CO)	500 ppm
	Nitrogeno oxidoak NO2 (NOx) gisa neurtuta	300 ppm
	KOHak KOG gisa neurtuak	50 mgC/Nm^3
9	Karbono monoxidoa (CO)	500 ppm
	Nitrogeno oxidoak NO2 (NOx) gisa neurtuta	300 ppm
	KOHak KOG gisa neurtuak	50 mgC/Nm^3
10	Karbono monoxidoa (CO)	500 ppm
	Nitrogeno oxidoak NO2 (NOx) gisa neurtuta	300 ppm
	KOHak KOG gisa neurtuak	50 mgC/Nm^3

Hainbat estaldura mota jarduerarako isurketa barreiatuen muga-balioa (disolbatzaileen sarrera-portzentajea) % 20koa da.

Muga-balio horiek baldintza hauek dituzte: 273 K-eko tenperatura, 101,3 kPa-eko presioa eta gas lehorra.

Gehienez onar daitezkeen balioek ez dituzte isurketarako muga-balioak gainditu, arauz egingo diren aldizkako ikuskaritzetan (ordubeteko hiru neurketa gutxienez) zortzi ordutan zehar neurtuta. Neurketa-tolerantzia gisa, kasu guztien % 25ean gainditu ahal izango da muga-balioa, % 40a gainditzen ez duen zenbatekoa baldin bada. Tolerantzia hori gainditu gero, neurketa-aldia astebetez luzatuko da, eta aldi honetako tolerantzia global gisa, kasuen % 6an gehienez onar daitezkeen mailak gainditzea onartuko da, % 25a gainditzen ez duen zenbatekoa denean. Tolerantzia horiek izanda ere, gai kutsatzaileak isurtzen dituen fokuaren eraginpeko zonaldean ezin izango dira inoiz higienikoki onar daitezkeen balioak gainditu.

KOHei (KOG bezala neurtuta) dagokienez, gehienez onar daitezkeen balioek ez dituzte isurketarako muga-balioak gainditu, arauz egingo diren aldizkako ikuskaritzetan (ordubeteko hiru neurketa gutxienez), baldin eta neurketa guztien batez bestekoak ez baditu gainditzen isurketarako muga-balioak, eta ordubeteko neurketek ez badituzte gainditzen isurketarako muga-balioak, 1,5 baino gehiagogatik.

B.1.1.4.– Gasak bildu eta husteko sistemak.

Fokuetako gas-hondarrak kanporatzeko tximiniek ez dute B.1.1.2 atalean jasota dagoen goreneko kota baino baxuagoa izango. Tximinietan behar beste neurri hartuko dira Industria Ministerioak industriak atmosferan eragiten duen kutsadurari aurrea hartu eta hori zuzentzeari buruz 1976ko urriaren 18an emandako Agindua bete dezaten; besteak beste, laginak hartzeko puntuetara iristeko sarbide seguru eta errazak izango dituzte.

Zehazki, laginak hartzeko aurreikusitako zuloen kokapenari eta ezaugarriei dagokienez, gas-fluxuak laginketa-puntutik neurketa-puntura bitartean, bere norabidean zehar nahiz aurkakoan, edozein asaldu izan dezakeen gunera bitarteko distantziak (L1 eta L2 parametroak) 1976ko urriaren 18ko Aginduaren III. eranskinean xedatutakoa beteko dute. L1 ≥ 8D eta L2 ≥ 2D distantziak betetzen ezi diren fokuetarako inoiz ez dira L1 < 2D eta L2 < 0,5D balioak onartuko. Kasu horietan, neurketen txostenean laginketa-planoaren baliotasuna justifikatzea eskatuko da.

B.1.2.– Añarbeko Ur Partzuergoaren saneamendu-sarera isurketak egiteko baldintzak.

B.1.2.1.– Isurketen sailkapena, jatorria, ingurune hartzailea eta kokapena.

Industria-isurketa sortzen duen jarduera mota nagusia: Jasotze– eta manipulazio-makinen fabrikazioa.

Jarduera-taldea: Metala.

Mota-taldea-EJSN: 1-2-29.22.

Isurketa-puntua	Hondakin-ur mota	Isurketaren jatorria	Ingurune hartzailea	Arro hidrografikoa	Ingurune hartzailearen kategoria	Isurketa-puntuaren UTM koordenatuak	
						X	Y
1	Industriako hondakin-urak Lastaola pabiloia	Isurketa honako fluxuek osatzen dute: ● Koipegabetze-aren garbiketa-urak ● Fosfatatzearen garbiketa-urak	Añarbeko Uren Kolektorea	-	-	585633	4790312

B.1.2.2.– Lastaola eraikineko Industria-isurketen gehienezko emariak eta bolumenak:

Puntako emaria	2,9 l/s
Eguneko gehienezko bolumena	248 m^3
Urteko gehienezko bolumena	54.248 m^3

B.1.2.3.– Industria-isurketen eta zerbitzu higienikoen isurketen gehienezko balioak:

Añarbeko Uren Mankomunitatearen «Saneamendu Sarera isurketak egiteko araudian» biltzen diren mugak eta baldintzak bete beharko dira, erakunde horrek egoki iritzitako zehaztasun, aldaketa eta salbuespenekin.

Ezingo dira diluzio-teknikak erabili isurtzeko muga-balioak lortzeko.

B.1.2.4.– Araztu eta husteko instalazioak:

Orona SK enpresak ez du isurketak arazteko instalaziorik. Horiek zuzenean kolektorera isurtzen dira isurketa-mugak betetzen direla adierazita.

Hartutako neurri zuzentzaileak nahikoak ez direla ikusiz gero, Orona SK enpresak behar beste aldaketa egingo ditu arazketako instalazioetan isurketak baimenean ezarritako baldintzak bete ditzan. Aldaketak Administrazioari jakinaraziko dizkio lehenik; behar izanez gero, baimena aldatzeko ere eskatuko du.

Aurkeztutako agirien arabera, industria-prozesuko isurketak kontrolatzeko kutxeta bat eta Lastaola eta Epele pabiloietako azken isurketetarako kutxeta bana jarriko dira; kutxetek isurketen lagin esanguratsuak lortzeko beharrezkoak diren ezaugarri guztiak izan beharko dituzte. Kutxetak ikuskatu ahal izateko sarbide zuzena ahalbidetzen duten lekuan kokatuko dira, hala badagokio.

B.1.3.– Instalazioan sortutako hondakinak egoki kudeatzen direla bermatzeko baldintzak.

Instalazioetan sortzen diren hondakin guztiak hondakinei buruzko apirilaren 21eko 10/1998 Legean eta aplikatzekoa den berariazko gainerako araudian xedatutakoari jarraituz kudeatuko dira; hala badagokio, hondakinak karakterizatu egin beharko dira euren izaera zehaztu eta helburu egokiena erabakitzeko.

Espresuki debekatuta dago sortzen diren tipologia desberdineko hondakinak elkarrekin edo beste hondakin nahiz efluente batzuekin nahastea; hondakinak jatorritik bertatik bereiziko dira eta horiek bildu eta biltegiratzeko bide egokiak jarriko dira, nahasketak saihesteko.

Hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei jarraituz, hondakin oro baliotu egin behar da eta horretarako balioztagune baimendu batera eraman behar dira. Hondakinak ezabatu ahal izango dira, baldin eta horiek baliotzea teknika, ekonomia edota ingurumen aldetik bideragarria ez dela behar bezala egiaztatzen bada. Birsortzea eta berrerabiltzea lehenetsiko dira baliotzeko beste modu material edo energetikoren aurretik.

Era berean, hondakinak tratatzeko Euskal Autonomia Erkidegoan instalazio baimenduak badaude, instalazio horietara bidaliko dira lehentasunez, autosufizientzia- eta gertutasun-printzipioei jarraituz.

Zabortegian ezabatzea aurreikusita dagoen hondakinen karakterizazioa, Kontseiluaren 2002ko abenduaren 19ko 2003/33/EE Erabakiarekin bat etorriz gauzatuko da. Erabaki horren bidez, hondakinak zabortegian hartzeko irizpideak eta prozedurak ezartzen dira, eta hala badagokio, erabaki hori garatzeko Euskal Autonomia Erkidegoan onartutako jarraibideak.

Hondakinak biltzeko eremuek lurzoru estankoa izan beharko dute. Egoera fisiko likidoan edo oretsuan dauden edo oso bustita daudelako isurketak edo lixibiatuak sor ditzaketen hondakinen kasuan, horiek biltzeko kubeta edo sistema egokiak jarriko dira, ezbeharrez gerta daitezkeen isurketak kanpora irten ez daitezen. Hondakina hautsa bada, euri-urarekin kontakturik izan dezan edo haizeak arrasta dezan saihestuko da; behar izanez gero, estali egingo da.

Hondakinek desagertu, galdu edo ihes egingo balute, berehala jakinaraziko da gertatutakoa Ingurumen Sailburuordetzan eta Hernaniko Udalean.

B.1.3.1.– Hondakin Arriskutsuak.

Sustatzaileak adierazitako hondakin arriskutsuak honako hauek dira:

- 1. prozesua: «Mekanizazioa».

○ 1. hondakina: «Taladrina».

– Identifikazioa: F20025318/2000012811/1/1.

– Hondakinaren kodea: Q7//D13//L9//C51//H5//A241//B3140.

– EHZ: 120109.

– Urtean sortutako kantitatea: 25.234 kilogramo.

Taladrinaren degradazio bidezko mekanizatze-makinetan sortzen da; olio-ura emultsioa da.

Hondakin horrentzat identifikatutako edukiontzian biltzen da (1.000 litroko putzupada) sortzen den lekuan edo lekuetan, eta bete ondoren, Epele eraikinean dagoen hondakinen biltegira eramaten da. Noizean behin kudeatzaile baimendu batek jasotzen du.

○ 2. hondakina: «Koipeztatze-olioa urarekin».

– Identifikazioa: F20025318/2000012811/1/2.

– Hondakinaren kodea: Q7//R13//L9//C51//H5//A241//B3140.

– EHZ: 130802.

– Urtean sortutako kantitatea: noizean behin.

Txirbil-harroketan sortzen da: skimmer-arekin bereizitako olioa.

1.000 litroko GRG batean biltzen da eta betetzen denean Epele eraikinean dagoen hondakin-biltegira eramaten da. Noizean behin kudeatzaile baimendu batek jasotzen du.

● 2. prozesua: «Koipegabetzea».

○ 1. hondakina: «Koipegabetze alkalinoa».

– Identifikazioa: F20025318/2000012811/2/1.

– Hondakinaren kodea: Q8//D9/L21//C24//H6//A241//B3128.

– EHZ: 110107.

– Urtean sortutako kantitatea: 9.110 kilogramo.

Koipegabetze-upela aldatzerakoan sortzen da; gatz-disoluzioa da.

Koipegabetze-instalazioan bertan jasotzen da zuzenean, kudeatzaile baimenduari emateko.

● 3. prozesua: «Fosfatatzea».

○ 1. hondakina: «Fosfatatze-opil lehorra».

– Identifikazioa: F20025318/2000012811/3/1.

– Hondakinaren kodea: Q8//D13/S-P21//C23//H4//A241//B3127.

– EHZ: 110108.

– Urtean sortutako kantitatea: 743 kilogramo.

Fosfatatze-upelaren lohien prentsa-iragazkian sortzen da.

Aipatu hondakinerako identifikatu eta etiketatutako bidoietan jasotzen da. Epele eraikinean kokatzen den hondakin arriskutsuen biltegian biltegiratzen dira kudeatzaile baimenduari eman arte.

○ 2. hondakina: «fosfatatzea».

– Identifikazioa: F20025318/2000012811/3/2.

– Hondakinaren kodea: Q8//D9//L21//C23//H5/6//A241//B3127.

– EHZ: 110108.

– Urtean sortutako kantitatea: 31 tona.

Upelak matxurak edota mantentze-lanak daudenean garbitzerakoan sortzen da.

Fosfatatze-instalazioan bertan jasotzen da zuzenean, kudeatzaile baimenduari emateko.

● 4. prozesua: «Pintaketa».

○ 1. hondakina: «Pintura-lohiak».

– Identifikazioa: F20025318/2000012811/4/1.

– Hondakinaren kodea: Q8//D13//P12//C41//H5/6//A241//B3144.

– EHZ: 080115.

– Urtean sortutako kantitatea: 24.597 kilogramo.

Eskuzko pintaketa-instalazioko zuloaren garbiketan, pintura-upelaren garbiketan eta murgilketa bidezko pintaketa-instalazioaren piezen jarioan sortzen da.

Hondakin horrentzat identifikatutako edukiontzian biltzen da sortzen den lekuetan, eta bete ondoren, Epele eraikinean dagoen hondakinen biltegira eramaten da. Kudeatzaile baimendu batek eramaten du.

○ 2. hondakina: «Pintura-solidoak».

– Identifikazioa: F20025318/2000012811/4/2.

– Hondakinaren kodea: Q8//D13//S12//C41//H5/6//A241//B3144.

– EHZ: 080111.

– Urtean sortutako kantitatea: 3.876 kilogramo.

Murgiltze bidez piezak pintatzeko instalazioaren lehortze-labean sortzen da. Pintura solidoa da.

Hondakin horrentzako identifikatutako bidoian jasotzen da. Bidoia betetzean hondakinen biltegira eramaten da. Noizean behin kudeatzaile baimendu batek jasotzen du.

○ 3. hondakina: «Iragazki kutsatuak».

– Identifikazioa: F20025318/2000012811/4/3.

– Hondakinaren kodea: Q9//D15//S35//C41//H5//A241//B3144.

– EHZ: 150202.

– Urtean sortutako kantitatea: 4.803 kilogramo.

Eskuzko pintatzeko kabinetako gasen arazketa-sistemako iragazkiak aldatzerakoan sortzen da.

Hondakin horrentzat identifikatu eta etiketatutako bidoian jasotzen da Epele eraikineko hondakin arriskutsuen biltegian kudeatzaile baimenduari eman arte.

○ 4. hondakina: «Ikatz aktiboko iragazkia».

– Identifikazioa: F20025318/2000012811/4/4.

– Hondakinaren kodea: Q9//D15//S28//C39//H05//A241//B3144.

– EHZ: 150202.

– Urtean sortutako kantitatea: Noizean behin.

Ur desmineralizatuaren instalazioko iragazkia aldatzerakoan sortzen da.

Zaku batean jasotzen da eta betetzen denean Epele eraikinean dagoen hondakin-biltegira eramaten da. Noizean behin kudeatzaile baimendu batek jasotzen du.

○ 5. hondakina: «Harea-iragazkiak».

– Identifikazioa: F20025318/2000012811/4/5.

– Hondakinaren kodea: Q12//D15//S23//C51//H05//A241//B3144.

– EHZ: 150202.

– Urtean sortutako kantitatea: Noizean behin.

Ur desmineralizatuaren instalazioko iragazkiaren harea aldatzerakoan sortzen da.

Zaku batean jasotzen da eta betetzen denean Epele eraikinean dagoen hondakin-biltegira eramaten da. Noizean behin kudeatzaile baimendu batek jasotzen du.

● 5. prozesua: «Zerbitzu orokorrak».

○ 1. hondakina: «Olio erabilia».

– Identifikazioa: F20025318/2000012811/5/1.

– Hondakinaren kodea: Q7//R13//L8//C51//H5/6//A241//B0019.

– EHZ: 130205.

– Urtean sortutako kantitatea: 2.030 kilogramo.

Ekipo eta makinen mantentze-lanetan sortzen da; olio mineral mekaniko eta hidraulikoak dira.

Hondakin horrentzat identifikatutako bidoian biltzen da sortzen den lanpostuetan, eta bete ondoren, Epele eraikinean dagoen hondakinen biltegira eramaten da. Ondoren, kudeatzaile baimendu batek eramaten du.

○ 2. hondakina: «botoi-pilak».

– Identifikazioa: F20025318/2000012811/5/2.

– Hondakinaren kodea: Q6//R13//S37//C16//H5//A241//B0019.

– EHZ: 160603.

– Urtean sortutako kantitatea: Noizean behin.

Pila agortuak biltzeko eragiketetan sortzen da Mantentze-lan Orokorrak azpi-prozesuan; merkurioa duten pila erabiliak dira.

Hondakin horretarako identifikatutako edukiontzian jasotzen da; ondoren, Epele eraikinean kokatzen den hondakin arriskutsuen biltegian biltegiratzen da kudeatzaile baimenduak jaso arte.

○ 3. hondakina: «Lanpara fluoreszenteak».

– Identifikazioa: F20025318/2000012811/5/3.

– Hondakinaren kodea: Q6//R13//S40//C16//H5//A241//B0019.

– EHZ: 200121.

– Urtean sortutako kantitatea: 178 kilogramo.

Lanparak birjartzeko eragiketetan sortzen da mantentze-lan orokorren azpi-prozesuan; merkurioa duten lanpara erabiliak dira.

Hondakin horrentzat identifikatu eta etiketatutako kaxan jasotzen da Epele eraikineko hondakin arriskutsuen biltegian kudeatzaile baimenduari eman arte.

○ 4. hondakina: «Hondakin sanitarioak».

– Identifikazioa: F20025318/2000012811/5/4.

– Hondakinaren kodea: Q16//R13//S1//C35//H9//A241//B0019.

– EHZ: 180103.

– Urtean sortutako kantitatea: Kilogramo 1.

Zerbitzu Medikuaren azpiprozesuan sortzen da; hondakin ebakitzaileak eta zorrotzak dira.

Edukiontzi hermetiko batean gordetzen da, sendaketa-gelan; edukiontzia zuzenean erretiratzen du baimendutako kudeatzaileak.

○ 5. hondakina: «Berunezko bateriak».

– Identifikazioa: F20025318/2000012811/5/5.

– Hondakinaren kodea: Q6//R13//S37//C18/23//H6/8//A241//B0019.

– EHZ: 160601.

– Urtean sortutako kantitatea: 1.410 kilogramo.

Bateria berriak jartzeko lanetan sortzen da; beruna eta soluzio azidoa duten bateria erabiliak dira.

Hondakin horrentzat identifikatu eta etiketatutako edukiontzian jasotzen da Epele eraikinean kokatutako hondakinen biltegian kudeatzaile baimenduari eman arte.

○ 6. hondakina: «Ni-Cd-zko bateriak».

– Identifikazioa: F20025318/2000012811/5/6.

– Hondakinaren kodea: Q6//R13//S37//C5/11//H14//A241//B0019.

– EHZ: 160602.

– Urtean sortutako kantitatea: Noizean behin.

Metagailu agortuak aldatzean sortzen da; nikela edota kadmioa dute.

Hondakinen biltegian hondakin horrentzako berariaz identifikatutako bidoian jasotzen da. Bidoiak Epele eraikinean kokatzen den hondakin arriskutsuen biltegian biltegiratzen dira kudeatzaile baimenduari eman arte.

○ 7. hondakina: «Garbiketako ur zikinak».

– Identifikazioa: F20025318/2000012811/5/7.

– Hondakinaren kodea: Q5//D15//L9//C41/51//H5//A241//B0019.

– EHZ: 080119.

– Urtean sortutako kantitatea: 58.075 kilogramo.

Industria-garbiketen operazioetan sortzen da; hainbat kutsagarri dituen ura da.

Hondakin horrentzat identifikatu eta etiketatutako bidoietan jasotzen da Epele eraikineko hondakin arriskutsuen biltegian kudeatzaile baimenduari eman arte.

○ 8. hondakina: «Pintura likidoa».

– Identifikazioa: F20025318/2000012811/5/8.

– Hondakinaren kodea: Q8//R13//L12//C41//H3b//A241//B0019.

– EHZ: 080111.

– Urtean sortutako kantitatea: Noizean behin.

Murgilketa bidezko pintatze-operazioetan sortzen da; disolbatzaile organikoen hondarrak dituen ur-pintura da.

Zuzenean sortzen den lekuan edukiontzi batean jasotzen da (1.000 litroko putzupada), eta Epele eraikinean kokatutako hondakin arriskutsuen biltegian biltegiratzen da kudeatzaile baimenduak jaso arte.

○ 9. hondakina: «Fenolak dituen taladrina».

– Identifikazioa: F20025318/2000012811/5/9.

– Hondakinaren kodea: Q7//D15//L8//C51//H5//A241//B0019.

– EHZ: 130802.

– Urtean sortutako kantitatea: 20.000 litro.

Txirbil-harroketako makinetan sortzen da; olioak dituen ura da.

Hondakin horrentzat identifikatu eta etiketatutako bidoietan jasotzen da Epele eraikineko hondakin arriskutsuen biltegian kudeatzaile baimenduari eman arte.

○ 10. hondakina: «Ontzi aerosolak».

– Identifikazioa: F20025318/2000012811/5/10.

– Hondakinaren kodea: Q6//R13//S36//C41/51//H3b//A241//B0019.

– EHZ: 160504.

– Urtean sortutako kantitatea: 50 kilogramo.

Mantentze-lanetan (koipeztatzeak), pintura- eta garbiketa-ukituak egiterakoan aerosolak erabiltzearen ondorioz sortzen da; disolbatzaile eta hidrokarburoen hondarrak dituzten ontzi hutsak dira.

Hondakin horrentzat identifikatu eta etiketatutako bidoietan jasotzen da Epele eraikineko hondakin arriskutsuen biltegian kudeatzaile baimenduari eman arte.

○ 11. hondakina: «Garbitzeko disolbatzailea».

– Identifikazioa: F20025318/2000012811/5/11.

– Hondakinaren kodea: Q7//R13//L5//C41//H3b//A241//B0019.

– EHZ: 140603.

– Urtean sortutako kantitatea: 320 litro.

Koipegabetze-operazioetan sortzen da mantentze-tailerrean; disolbatzaile organikoak dira.

Zuzenean fosfatatze-instalaziotik jasotzen da.

○ 12. hondakina: «Osagai elektronikoak».

– Identifikazioa: F20025318/2000012811/5/12.

– Hondakinaren kodea: Q14//R13//S40//C16//H6/14//A241//B0019.

– EHZ: 160213.

– Urtean sortutako kantitatea: 1.900 kilogramo.

Matxuratutako plaka eta osagai elektronikoak aldatzerakoan sortzen da; metal, plastiko, merkurio eta bere osagaien material elektronikoa da.

Horretarako identifikatu eta etiketatutako 1.000 litroko putzupadan jasotzen da eta hondakin arriskutsuen biltegian gordetzen da kudeatzaile baimenduari entregatzeko.

○ 13. hondakina: «Kola agortuak».

– Identifikazioa: F20025318/2000012811/5/13.

– Hondakinaren kodea: Q7//R13//P13//C41//H3b//A241//B0019.

– EHZ: 080409.

– Urtean sortutako kantitatea: 6.500 kilogramo.

Ponpen garbiketa bidez jasotako kola-hondarra da; prozesuan (ateen soldadura) akatsa edo matxuraren ondorioz sortutako kola ondua da disolbatzaile organikoak dituena.

Hondakin horrentzat identifikatu eta etiketatzeko edukiontzian jasotzen da Epele eraikinean kokatutako hondakin arriskutsuen biltegian kudeatzaile baimenduari eman arte.

○ 14. hondakina: «Txirbilaren lohia».

– Identifikazioa: F20025318/2000012811/5/14.

– Hondakinaren kodea: Q8//D15//S8//C51//H5//A241//B0019.

– EHZ: 120114.

– Urtean sortutako kantitatea: 10.000 kilogramo.

Mekanizatze-makinen ateragailuetan geratzen diren mekanizatze-hidrokarburoak dituzten taladrina eta txirbil fineko lohien hondarrak dira.

Horretarako identifikatu eta etiketatutako 1.000 litroko putzupadan jasotzen da eta Epele eraikineko hondakin arriskutsuen biltegian gordetzen da kudeatzaile baimenduari entregatzeko.

○ 15. hondakina: «Laser-hautsa».

– Identifikazioa: F20025318/2000012811/5/15.

– Hondakinaren kodea: Q8//D15//S25//C51//H5//A241//B0019.

– EHZ: 110503.

– Urtean sortutako kantitatea: 5.000 kilogramo.

Mekanizatze-makinen ateragailuetan geratzen diren mekanizatze-hidrokarburoak dituzten taladrina eta txirbil fineko lohien hondarrak dira.

Horretarako identifikatu eta etiketatutako 200 litroko bidoi metalikoan jasotzen da eta hondakin arriskutsuen biltegian gordetzen da kudeatzaile baimenduari entregatzeko. Hondakin likidoentzako atxikipen-kubetak ditu eta hondakina biltegiratzeko erabiltzen den zola epoxi-erretxinaren bidez iragazgaiztu da. Jarioak jasotzeko kutxeta bat du.

○ 16. hondakina: «Zuntz-zementua».

– Identifikazioa: F20025318/2000012811/5/16.

– Hondakinaren kodea: Q7//D15//S12//C25//H6//A241//B0019.

– EHZ: 170605.

– Urtean sortutako kantitatea: Noizean behin.

Amiantoa duten zorroten edo tutueria zaharrak konpondu edo aldatzerakoan sortutako hondarrak dira.

Hondakinarentzat identifikatutako bidoimetalikoan biltzen da. Instalazioen aldaketa-lanetan sortzen den noizean behingo hondakina da.

○ 17. hondakina: «Tonerra».

– Identifikazioa: F20025318/2000012811/5/17.

– Hondakinaren kodea: Q6//R13//S12//C41//H05//A241//B0019.

– EHZ: 080317.

– Urtean sortutako kantitatea: Noizean behin.

Inpresora eta fotokopiagailuen kartutxoetan sortzen da.

200 litroko bidoietan jasotzen da, eraikin kanpoko biltegiratze-eremuan, nabe irekietan. Noizean behin kudeatzaile baimendu batek jasotzen du.

○ 18. hondakina: «Pilak».

– Identifikazioa: F20025318/2000012811/5/18.

– Hondakinaren kodea: Q6//R13//S37//C24//H05//A241//B0019.

– EHZ: 200133.

– Urtean sortutako kantitatea: Noizean behin.

Bulegoetan sortzen da eta horretarako jarritako edukiontzian biltegiratzen da.

Noizean behin kudeatzaile baimendu batek jasotzen du.

○ 19. hondakina: «gasolioa».

– Identifikazioa: F20025318/2000012811/5/19.

– Hondakinaren kodea: Q7//R13//L9//C51//H3b//A241//B0019.

– EHZ: 130701.

– Urtean sortutako kantitatea: 0,2 tona.

Ekipo eta makinen mantentze-lanetan sortzen da.

Hondakinarentzat identifikatutako bidoian jasotzen da, sortzen den postuetan. Bete ondoren, hondakin-biltegira eramaten da.

● 6. prozesua: «Hondakinak taldekatzea».

○ 1. hondakina: «Metalezko ontziak».

– Identifikazioa: F20025318/2000012811/6/1.

– Hondakinaren kodea: Q5//R13//S36//C41/51//H5//A241//B9711.

– EHZ: 150110.

– Urtean sortutako kantitatea: 4.175 kilogramo.

Ontzi hutsak jaso eta pilatzeko azpi-prozesuan sortzen da; bereziki pinturak eta disolbatzaileak dituzten ontzi metalikoak dira.

Hondakin horrentzat identifikatutako big-bag-etan biltzen da sortzen den lekuetan, eta bete ondoren, Epele eraikinean dagoen hondakinen biltegira eramaten da. Ondoren, kudeatzaile baimendu batek eramaten du.

○ 2. hondakina: «Plastikozko ontziak».

– Identifikazioa: F20025318/2000012811/6/2.

– Hondakinaren kodea: Q5//R13//S36//C41/51//H5//A241//B9711.

– EHZ: 150110.

– Urtean sortutako kantitatea: 563 kilogramo.

Ontzi hutsak jaso eta pilatzeko azpi-prozesuan sortzen da; bereziki pinturak eta disolbatzaileak dituzten plastikozko ontziak dira.

Hondakin horrentzat identifikatutako big-bag-etan biltzen da sortzen den lekuetan, eta bete ondoren, Epele eraikinean dagoen hondakinen biltegira eramaten da. Ondoren, kudeatzaile baimendu batek eramaten du.

○ 3. hondakina: «Trapu kutsatuak».

– Identifikazioa: F20025318/2000012811/6/3.

– Hondakinaren kodea: Q5//D13//S34//C41/51//H5//A241//B9711.

– EHZ: 150202.

– Urtean sortutako kantitatea: 852 kilogramo.

Xurgatzaileak eta Ehunak Bildu eta Pilatzeko azpi-prozesuan kodetzen dira; pinturaz, disolbatzailez eta koipez bustitako trapuak dira.

Hondakin horrentzat identifikatutako big-bag-etan biltzen da sortzen den lekuetan, eta bete ondoren, Epele eraikinean dagoen hondakinen biltegira eramaten da kudeatzaile baimenduak jaso arte.

○ 4. hondakina: «Sepiolita kutsatua».

– Identifikazioa: F20025318/2000012811/6/4.

– Hondakinaren kodea: Q5//D13//S40//C41/51//H5//A241//B9711.

– EHZ: 150202.

– Urtean sortutako kantitatea: 200 kilogramo.

Xurgatzaileak eta Ehunak Bildu eta Pilatzeko azpi-prozesuan kodetzen dira; pinturaz, disolbatzailez eta koipez bustitako sepiolita da.

Hondakin horrentzat identifikatutako bidoian biltzen da sortzen den lekuan, eta bete ondoren, Epele eraikinean dagoen hondakinen biltegira eramaten da kudeatzaile baimenduak jaso arte.

○ 5. hondakina: «1.000 L-ko Putzupada ontziak».

– Identifikazioa: F20025318/2000012811/6/5.

– Hondakinaren kodea: Q5//R13//S36//C41/51//H5//A241//B9711.

– EHZ: 150110.

– Urtean sortutako kantitatea: 60 kilogramo.

Ontziak manipulatu eta biltegiratzean sortzen da kaltetu eta erabilgaitz geratzen direnean; disolbatzaile eta hidrokarburuen hondarrak dituzten 1.000 litroko plastikozko ontziak dira.

Zuzenean koipegabetze-instalaziotik jasotzen dira, etiketatu eta kudeatzaile baimendu bati eman arte biltegiratzen dira.

○ 6. hondakina: «Loi-elkartrukeko erretxinak».

– Identifikazioa: F20025318/2000012811/6/6.

– Hondakinaren kodea: Q8//D15//S12//C41/51//H6//A241//B9711.

– EHZ: 190806.

– Urtean sortutako kantitatea: 415 kilogramo.

Ur desmineralizatuaren instalazioan sortzen da (ateen pintura-instalazioa); disolbatzaile-hondarrak dituzten erretxin kationiko eta anionikoak dira.

Horretarako identifikatu eta etiketatutako bidoi metalikoan jasotzen da eta Epele eraikineko hondakin arriskutsuen biltegian gordetzen da kudeatzaile baimenduari entregatzeko.

Sustatzaileak urtean hondakin arriskutsu hauen sortutako kantitatea aurkeztu beharko du: koipeztatzeko olioa urarekin, ikatz aktiboko iragazkia, harea-iragazkiak, tonerra eta pila alkalinoak.

a) Hondakin arriskutsuak biltzeko sistemak bereiziak izango dira, duten tipologia dela-eta, isuriren bat gertatuz gero, nahasi, arriskutsuago bihurtu edo kudeaketa zaildu dezaketen kasuetan.

b) Hondakin arriskutsuak dituzten ontziek hondakin toxiko eta arriskutsuei buruzko maiatzaren 14ko 20/1986 Oinarrizko Legea betearazteko erregelamendua onartzen duen uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuak 13. artikuluan ezarritako segurtasun-arauak kontuan izan beharko dituzte, eta itxita egongo dira kudeatzaileak jaso arte, isuri edo lurrundu ez daitezen.

c) Aurreko atalean aipatzen diren ontziek etiketatuta egon beharko dute, eta etiketak argia, irakurtzeko modukoa eta ezabaezina izan beharko du; etiketa uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuak 14. artikuluan horretarako adierazitako jarraibideen araberakoa izango da.

d) Berariazko hondakin sanitarioak (II. taldea) manipulatu, ontziratu, etiketatu eta gordetzeko baldintzak Euskal Autonomia Erkidegoan hondakin sanitarioak kudeatzeko baldintzak arautzen dituen martxoaren 26ko 76/2002 Dekretuan eta hori garatzeko araudietan ezarritakoak izango dira.

e) Hondakin arriskutsuak gordetzeko denbora ezingo da 6 hilabetetik gorakoa izan.

f) Hondakinak kudeatzaile baimenduaren instalazioetara eraman aurretik, nahitaezko baldintza izango da agiri baten bidez egiaztatzea kudeatzaile baimendu horrek hondakinak onartu dituela. Agiri horretan hondakinak onartzeko baldintzak ezarriko dira, eta egiaztatu egingo da tratatu beharreko hondakinaren ezaugarriak administrazio-baimenarekin bat datozela. Agiri hori Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko da hondakina lehenengoz erretiratu aurretik eta, behar izanez gero, hondakinen kudeatzaile berri batengana eraman aurretik. Beharrezkoa izanez gero, karakterizazio xehatua egingo da, proposatutako tratamenduaren egokitasuna egiaztatzeko. Hala badagokio, arrazoitu egin beharko da proposatutako kudeaketa-modua Ebazpen honetako hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei egokitzen zaiela.

g) Hondakin arriskutsuak eraman aurretik eta, hala badagokio, araudian ezarritako aurretiazko jakinarazpena egin ondoren, kontrolerako eta jarraipenerako agiria bete beharko da. Agiri horren zati bat garraiolariari emango zaio, zamarekin batera jatorritik helmugaraino eraman dezan. Orona SK enpresak artxibategian erregistratu eta gorde beharko ditu onarpen-agiriak eta kontrolerako zein jarraipenerako agiriak, edo horien agiri ofizial baliokideak, bost urtean gutxienez.

h) Egiaztatu egin beharko da hondakin arriskutsuak kudeatzaile baimenduaren instalazioetara eramateko erabiliko den garraiobideak horrelako gaiak garraiatzeko indarrean dagoen legerian ezarritako baldintzak betetzen dituela.

i) Orona SK enpresak ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretuari, industrian erabilitako olioaren kudeaketa arautzen duenari, jarraituz kudeatu beharko du sortutako olio erabilia.

j) Ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretuan aurreikusitako baimendutako kudeaketa bateraturako sistema bat ezartzen ez den bitartean, irailaren 29ko 259/1998 Dekretuan, Euskal Autonomia Erkidegoan erabilitako olioaren kudeaketa arautzen duenean, begiesten diren aurreikuspenak bete beharko ditu Orona SK enpresak.

k) Ekipo elektriko eta elektronikoen hondakinak, horien artean hodi fluoreszenteak, otsailaren 25eko 208/2005 Errege Dekretuan, tresna elektriko zein elektronikoei eta horien hondakinen kudeaketari buruzkoan ezarritakoaren arabera kudeatuko dira.

l) Orona SK enpresak poliklorobifeniloak eduki ditzaketen gailuak dituenez, kudeaketa egokia izan dadin, nahitaez bete behar ditu poliklorobifeniloak, polikloroterfeniloak eta horiek dituzten gailuak ezabatu eta kudeatzeko neurriak ezartzen dituen abuztuaren 27ko 1378/1999 Errege Dekretuaren baldintzak eta errege-dekretu hori aldatzen duen otsailaren 24ko 228/2006 Errege Dekretua.

m) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2000ko ekainaren 29ko 2037/2000 EE Arautegian ozono-geruza agortzen duten substantzia batzuk zehazten eta arautzen dira. Orona SK enpresak era horretako substantzia erabilirik badu, substantzia horiek bildu eta suntsitu egingo dira aldeek erabakitako bide teknikoak erabiliz edota ingurumen-ikuspuntutik onar daitekeen suntsiketarako beste edozein bide erabiliz; hondakin horiek birziklatu edo birsortu egingo dira bestela, aparatuak aztertu eta mantentzeko lanen aurretik nahiz desmuntatu edo suntsitu baino lehen.

n) Orona SK enpresak urtero adierazi beharko dio Ingurumen Sailburuordetzari ekitaldi bakoitzean sortu dituen hondakin arriskutsu guztien jatorria, kopurua, helmuga eta aldi baterako biltegiratuta dauden hondakinen zerrenda.

o) Erregistro bat edukiko du, hondakin arriskutsuei buruzko datu hauek agerrarazteko: kopurua, izaera, identifikazio-kodea, jatorria, tratatzeko metodo eta tokiak, sorrera– eta lagapen-datak, jasotzeko maiztasuna eta garraiatzeko modua, uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuaren 17. artikuluan ezarritakoa betez, eta uztailaren 20ko 952/1997 Errege Dekretuaren bidezko aldaketan ezarritakoa betez. Sei hilean behin, Ingurumen Sailburuordetzari kontrolerako erregistro horren kopia bidaliko dio.

p) Hondakin arriskutsuen kudeaketako funtsezko oinarriak bete daitezen, hau da, hondakin horiek ahal den gutxiena sortzeko, Orona SK enpresak neurri babesleak erabiliz hondakin arriskutsuen sorrera gutxitzeko plana aurkeztu beharko du Ingurumen Sailburuordetzan, gutxienez lau urtean behin.

q) Aurreko f) eta g) (kudeatzaileak EAEn daudenean), n) eta o) ataletan adierazitako agiriak Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira, ahal dela transakzio elektroniko bidez, IKS-L03 Sistemaren erakundeentzako bertsioa erabilita.

r) Amiantoa duten hondakinak antzemanez gero, Orona SK enpresak amiantoak ingurumenean sortzen duen kutsadura saihestu eta gutxitzeko 1991ko otsailaren 1eko 108/1991 Errege Dekretuan ezarritako eskakizunak bete beharko ditu. Era berean, amiantoa duten hondakinak kudeatzeko egingo diren manipulazioak martxoaren 31ko 396/2006 Errege Dekretuan ezarritako aginduen arabera burutuko dira; dekretu horren bidez ezarri ziren amiantoarekin lan egiterakoan segurtasun eta osasun arloan bete behar diren gutxieneko baldintzak.

B.1.3.2.– Hondakin ez-arriskutsuak.

Sustatzaileak adierazitako hondakin ez-arriskutsuak hauek dira:

Hondakinaren izena	EHZ kodea	Zein prozesuri lotuta	Zenbatetsitako ekoizpena (kg)
Zumitzak, txapa normal galvanizatuaren ebakinak	120101	Mekanizazioa	2.189.220
Txapa herdoilgaitzaren ebakinak	120103	Mekanizazioa	255.220
Aluminio-ebakinak	120103	Mekanizazioa	1.732
Kobre-txatarra	120103	Zerbitzu Orokorrak	641
Altzairu-txirbila	120101	Mekanizazioa	416.000
Altzairu-txirbila	120103	Mekanizazioa	2.682
Egitura metalikoak, makinak, zatikatzeak	170401	Zerbitzu Orokorrak	47.080
Geldoak orokorrean	200199	Zerbitzu Orokorrak	106.360
Kakoak, saskiak eta saretak	200140	Pintatzea	Noizean behin
Tonerra	080318	Zerbitzu Orokorrak	151
Zura eta zurezko paletak	200138	Materialen bilgarriak kentzea	127.180
Kartoia eta papera	200101	Materialen bilgarriak kentzea	80.790
Paketatzeko plastikoa	200139	Materialen bilgarriak kentzea	516

a) B.1.3 atalean bereiztearen eta hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoen inguruan xedatutakoari jarraituz, geldoak izeneko hondakinak ezingo du baliotu daitekeen hondakin-frakziorik izan. Horri dagokionez, egungo egoeran Euskal Autonomia Erkidegoan baliotu daitezkeen hondakin-frakzioak hauek dira: papera eta kartoia, zura, plastikoak, metal ferrikoak eta metal ez-ferrikoak.

b) Hondakin horiek ezabatzeko direnean ezin dira urtebete baino gehiagoz biltegiratuta eduki. Hondakinen azken helburua baliotzea denean, 2 urtez gorde ahal izango dira.

c) Oro har, hondakinak hustu aurretik, baimendutako kudeatzaile batek onartzen dituela dioen agiria izan beharko dute, onarpen horretarako baldintzak zehaztuta. Agiri horren kopia bidali beharko da Ingurumen Sailburuordetzara, proposatutako kudeaketa egokia dela eta ebazpen honetan ezarritako oinarrizko printzipioak betetzen direla egiaztatzeko. Hala badagokio, arrazoitu egin beharko da proposatutako kudeaketa-modua Ebazpen honetako hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei egokitzen zaiela. Orona SK enpresak artxibategian gorde beharko ditu onarpen-agiriak eta kontrolerako zein jarraipenerako agiriak, edo horien agiri ofizial baliokideak, aginduzkoak direnean, bost urtean gutxienez.

d) Halaber, hondakin geldo eta geldotuen kudeaketari buruzko azaroaren 2ko 423/1994 Dekretuarekin bat etorriz, hondakin ez-arriskutsuak zabortegi baimendu batera eraman aurretik,

jarraipenerako eta kontrolerako dagokion agiria bete beharko da. Agiri horiek bost urtez gorde beharko dira.

e) Erregistro bat egingo da, hondakinei buruzko datu hauek agerrarazteko: kopurua, izaera, identifikazio-kodea, jatorria, tratatzeko metodo eta tokiak, bai eta hondakin guztien sorrera– eta lagapen-datak, biltzeko maiztasuna eta garraiatzeko modua ere. Urtero, Ingurumen Sailburuordetzari bidaliko zaio kontrolerako erregistro horren kopia.

f) Aurreko c) eta d) (kudeatzaileak EAEn daudenean), eta g) ataletan adierazitako agiriak Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira, ahal dela transakzio elektroniko bidez, IKS-L03 Sistemaren erakundeentzako bertsioa erabilita.

B.1.4.– Lurzorua babesteko baldintzak.

Urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretuan eta otsailaren 4ko 1/2005 Legean ezarritako agindua betez lurzoruaren egoerari buruz aurkeztu duten aurretiazko txostenean jasota dauden gomendioen arabera, Orona SK enpresak hau guztia bete beharko du:

Zoruaren kalitatearen ikerketa sakonagoak egitea ondoko egoeraren bat ematen denean:

a) Jarduera zabaltzea.

b) Obrak eragin dituzten proiektuak gauzatzea.

c) Jarduera behin betiko uztea.

d) Lurzoruaren kalifikazioa aldatzea.

B.1.5.– Zaratari buruzko baldintzak.

Jarraian adierazitako zarata-mailak ez gainditzeko neurriak instalatuko dira:

a) Jarduera maila hauei egokitu behar zaie: etxebizitzen barrualdean entzungo den zarata ezin izango da inoiz ere 40 dB (A) baino handiagoa izan Leq 60 segundo etengabeko balioan neurtuta, 08:00ak eta 22:00ak bitartean, leiho eta ateak itxita, ezta 45 dB (A) ere gehienezko balioetan.

b) Jarduera maila hauei egokitu behar zaie: etxebizitzen barrualdean entzungo den zarata ezin izango da inoiz ere 30 dB (A) baino handiagoa izan Leq 60 segundo etengabeko balioan neurtuta, 22:00ak eta 08:00ak bitartean, leiho eta ateak itxita, ezta 35 dB (A) ere gehienezko balioetan.

c) Era berean, zarata ezin da 60 dB (A) baino handiagoa izan, Leq 60 segundo etengabeko balioan neurtuta, industria-eremuaren kanpoko itxituran.

d) Zamalanetan eta materiala kamioietan garraiatzean egiten den zaratak ez du handituko sentsibilitate akustiko handieneko guneetako zarata-maila.

C) Ingurumena zaintzeko programa.

Ingurumena zaintzeko programa sustatzaileak aurkeztutako agirietan aurreikusitakoaren eta ondoko atal hauetan ezarritakoaren arabera gauzatu beharko da:

C.1.– Atmosferara botatzen diren poluitzaileak kontrolatzea.

a) Orona SK enpresak isurien kontrola egin beharko du, informazio honi jarraituz:

Fokua	Foku-kodea	Fokuaren izena	Neurtu beharreko parametroak	Kontrolen maiztasuna
1	20000539-01	AA1. Pintaketa	KOH Guztizko partikulak	3 urtetik behin
2	20000539-02	AA2. Pintaketa	KOH Guztizko partikulak	3 urtetik behin
3	20000539-03	AA3. Pintaketa	KOH Guztizko partikulak	3 urtetik behin
4	20000539-04	AA4. Kolatzea	KOH Guztizko partikulak	3 urtetik behin
5	20000539-05	AVA2. Fosfatatze-bainuko xurgapena	Guztizko partikulak	5 urtetik behin
			KOH	3 urtetik behin
6	20000539-06	CIP1. Koipegabetze-upeleko erregailua	LK NOx	5 urtetik behin
7	20000539-07	F10 1 Labeko ateen haizagailua	LK NOx Guztizko partikulak KOH	3 urtetik behin
8	20000539-08	F11 2 Labeko ateen haizagailua	LK NOx Guztizko partikulak KOH	3 urtetik behin
9	20000539-09	F12 3 Labeko ateen haizagailua	LK NOx Guztizko partikulak KOH	3 urtetik behin
10	20000539-10	F13 4 Labeko ateen haizagailua	LK NOx Guztizko partikulak KOH	3 urtetik behin

Aurreko atalean aipatutako neurketa guztiak kontrol-erakunde baimendu (KEB) batek egin beharko ditu (zortzi ordutan hartutako hiru neurketa, gutxienez ordubetekoa bakoitza), eta aldizkako neurketa horiei buruzko txostenak Ingurumen Sailburuordetza honek prestatutako «KEBen gutxieneko txostenean» ezarritakora egokitu beharko du. Nolanahi ere, isurtzeko kontrolek eta baldintzek Ingurumen Sailburuordetzaren jarraibide teknikoetan eskatutako baldintza guztiak bete beharko dituzte.

Arestian eskatutako parametro guztien neurketen BKE txostenak bidaliko dira. Neurketa berriak egin beharko dira, baldin eta parametroen neurketarik ez badago edo egindako neurketak ebazpen honetan kontrol-maiztasuna ezarri aurretik egindakoak badira. Atmosferara egiten diren isurtzeen ondorengo kontrolak, egindako azken neurketan adierazitako maiztasunarekin egingo dira.

Zenbait jardueratan disolbatzaileak erabiltzeagatik sortzen diren konposatu organiko hegazkorren isurtzeak murrizteko urtarrilaren 31ko 117/2003 Errege Dekretuan ezarritakoa beteko du Orona SK enpresak. Xede horretarako, Ingurumen Sailburuordetzak eskatzen duen informazioa aurkeztu beharko da.

C.1.1.– Lortutako emaitzak erregistratzea.

Erregistro bat egin beharko da euskarri informatikoan edo, horrelakorik ezean, paperean. Dokumentazio gaurkotua erabilita gauzatuko da erregistroa, eta industriak atmosferan sortzen duen kutsadura saihestu eta zuzentzeari buruzko 1976ko urriaren 18ko Aginduak 33. artikuluan ezarritako edukia jaso beharko du. Erregistro horretan adieraziko dira egindako neurketen emaitzak, mantentze-lanak, garbiketa, aldizkako ikuskatzeak, matxuraren ondorioz gertatutako etenaldiak, egiaztapenak, edozein motako gorabeherak, eta abar. Dokumentazio horrek eguneratuta egon beharko du, eta ingurumen-ikuskatzaileek eskatuko balute, eskuragarri izango dute.

C.2.– Isuritako uraren kalitatea kontrolatzea.

Derrigorrezkoa da ur tratatua neurtzeko pH-neurgailu jarraiki bat eta isuritako uren emari-neurgailu bat izatea, neurketaren tokiko adierazlea, beharrezko bi puntutan alarmak, eta datu historikoak gordetzeko eta kudeatzeko sistema informatizatua dutenak. Horiek Administrazioaren esku egon beharko dute gainera.

a) Sustatzaileak aurkeztu dituen agirien arabera, ondorengo analisiak egingo dira:

Isurketa-puntua	Ingurune hartzailea	Kontrolatu beharreko fluxua	Kontrol-kutxetaren UTM koordenatuak		Neurtu beharreko parametroak	Kontrolen maiztasuna	Kontrol-mota
			X	Y			
1	Añarbeko Ur Partzuergoaren kolektorea	Industriako hondakin-urak	585633	4790312	pH-a Emaria	Jarraikia	Autokontrola
					pH-a Tenperatura Solido esekiak OEK OEB5 N-NH3 Olioak eta koipeak PGuztizkoa	Hilerokoa	Añarbeko Ur Partzuergoa

b) Kanpoko kontrol bakoitza, bai laginak hartzea, bai ondorengo analisia, «erakunde laguntzaile» batek egin eta egiaztatuko du, eta goian aipatutako parametroak hartuko dira kontuan. Sustatzaileak isurketa-puntu bakoitzeko lagin hartu berri baten analisia aurkeztu beharko du gutxienez; lagina 24 orduko ur-emariarekiko proportzionala izango da, edo bestela, lagin puntual esanguratsua.

Isurketen kontrolen emaitzak Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira laginak hartzen direnetik hilabete bateko (1) epean.

c) Laginketak kutsatzaile gehien sortzen den aldietan egingo dira.

d) Isurketak baimenean jarritako baldintza guztiak betetzen dituela ulertuko da, B.1.2.3 atalean ageri diren parametro guztiek ezarritako mugak betetzen baditu.

C.3.– Jardueraren adierazleak kontrolatzea.

Sustatzaileak jardueraren gaineko ondorengo parametro adierazleen jarraipena egingo du urtero, ingurumenean duten eragina aztertzeko.

Adierazlea	Unitatea
Energia-kontsumoa/Ekoitzitako unitatea	kWh/u. ekoiztua m^3 gas naturala/u. ekoiztua
Ur-kontsumoa/Ekoitzitako unitatea	m^3 ura/u. ekoiztua
Txapa-kontsumoa/Ekoitzitako unitatea	Kg txapa/u. ekoiztua
Altzairu-kontsumoa/Ekoitzitako unitatea	Kg altzairu/u. ekoiztua
Hondakinak sortzea/Unitate ekoiztua	Kg hondakin arriskutsu/u. ekoiztua Kg hondakin ez-arriskutsu/u. ekoiztua

C.4.– Zarataren kontrola.

Urtero zarataren kontrolak egingo dira, hartuko diren neurri teknikoen baliotasuna bermatzeko, bai eta dokumentazio horretan adierazten diren fokurik garrantzitsuenen eragin negatiboak murrizteko ere.

Jarduera garatzen den lur zatiko kanpoko baldintza akustikoak hiru urtean behin kontrolatuko dira, batez ere zarata etxe barruetara sartzeko arriskurik handiena dagoen aldeetan. Kontroleko lehen urtean izandako emaitzen arabera erabakiko da aurrerantzean neurketak urtero egin ala ez.

Sustatzaileak neurketen proposamen zehatz bat landu beharko du eta neurketa-metodo zehatzak adierazi bertan. Proposamen hori ebazpen honetako C.6 atalean aipatzen den ingurumena zaintzeko programaren testu bateginarekin batera aurkeztuko da.

C.5.– Emaitzak kontrolatu eta bidaltzea.

Ingurumena zaintzeko programa osatzen duten analisi eta txostenen emaitzak behar bezala erregistratuko dira, eta Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira. Bidalketa urtero egingo da, martxoaren 30a baino lehen beti, eta ingurumena zaintzeko programako emaitzekin batera, txosten bat aurkeztuko da. Txosten horretan adieraziko dira neurri babesle eta zuzentzaileen funtzionamendua, baita prozesuak eta inguruneare kalitatea kontrolatzeko sistemak ere. Emaitzen analisia ere adieraziko da, eta bereziki aipatuko dira aldi horretan gertatu diren gorabehera garrantzitsuenak, horien ustezko arrazoiak eta konponbideak, eta baita laginketen xehetasunak ere, aurretik zehaztu ez baldin badira.

Isuritako uraren kalitatearen kontrolari buruzko emaitzak, gainera, hiru hilean behin bidaliko dira Uraren Euskal Agentziara (Gipuzkoako Ordezkaritza).

C.6.– Ingurumena zaintzeko programaren agiri bategina.

Sustatzaileak ingurumena zaintzeko programaren agiri bategina landu beharko du, aurkeztu dituen agirietan eta ebazpen honetan proposatutako betebeharrak bilduz. Programa horrek hauek zehaztu beharko ditu: kontrolatu beharreko parametroak, parametro bakoitzerako erreferentzia-mailak, analisi edo neurketen maiztasuna, laginketak eta analisiak egiteko teknikak, eta laginak hartzeko guneen kokapen xehatua. Halaber, dagokion aurrekontua ere barne hartu beharko du.

Era berean, ingurumena zaintzeko programak jardueraren adierazleak zehaztu eta adierazle horiek aztertzeko sistematika barruan izan beharko du, horien arabera enpresan bertan ingurumen-hobekuntza ziurtatzearren ezarritako neurri eta mekanismoen eraginkortasuna egiaztatu ahal izateko (ingurumen-adierazleak).

D) Ezohiko egoeretarako prebentziozko neurriak eta jardunerako baldintzak.

D.1.– Instalazioa gelditzeko eta abiarazteko eragiketak eta mantentze-lanetarako programatutako eragiketak.

Programatutako urteko mantentze-eragiketei dagokienez, enpresak isurketarik ez dela eta ohikoak ez diren baldintzetan hondakinak sortzea justifikatuko du.

D.2.– Jarduera uztea.

Jarduera lege hauen aplikazio-esparrukoa da: lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko otsailaren 4ko 1/2005 Legea (29221 epigrafea Igogailu, karga-jasogailu, eskailera mekaniko eta antzekoen fabrikazioa), eta kutsadura sor dezaketen jardueren zerrenda eta lurzoru kutsatuen adierazpenerako irizpide zein estandarrak ezartzen dituen urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege

Dekretua. Hori dela-eta, Orona SK enpresak hasiera eman beharko dio lurzoruaren kalitatearen adierazpenerako prozedurari, gehienez ere bi hilabeteko epean, jarduera behin betiko uzten duenetik kontatzen hasita, otsailaren 4ko 1/2005 Legeak 17.4 artikuluan xedatutakoaren arabera.

D.3.– Ezohiko jardunean aplikatzeko prebentziozko neurriak eta jarduerak.

D.1 atalean jasotzen den proposamenean ezohiko egoeretan aplikatu beharreko prebentziozko neurriak eta jardunerako baldintzak zehazten dira. Horiez gain, ondorengo ataletan aipatzen diren baldintzak bete behar dira:

a) Prebentziozko mantentze-lanen eskuliburua eduki beharko da instalazioen egoera bermatzeko, batez ere ustekabeko jario edo ihesak daudenean kutsadura ekiditeko eskuragarri dauden baliabideei dagokienez. Isuri-ihesak daudenean lurzorua babesteko hartu beharreko neurriak zehaztuko dira, eta zehatz adieraziko da hauei dagokien guztia: eraikuntzako materialak (iragazgaiztea), biltegiratzeko neurri bereziak (gai arriskutsuak), egon daitezkeen isuri-ihesak antzemateko neurriak edo gainbetetzerako alarma-sistemak, fabrikako kolektore-sarea zaindu eta garbitzekoak (sistematikoki garbitzeko beharra, maiztasuna, garbiketa mota), eta lurzoruaren gaineko jarioak biltzeko sistemak. Era berean, kutsadura atmosferikoaren prebentzio– eta zuzenketa-sistemak (arazketa, minimizazioa, eta abar) egoera onean daudela bermatuko duten neurriak hartuko dira.

b) Aurreko paragrafoan adierazitako eskuliburuak ikuskapen eta kontrolerako programa jaso beharko du, hauek bilduko dituena: estankotasun-probak, mailen eta adierazleen egoera, balbulak, presioa arintzeko sistema, hormen egoera eta lodieren neurketa, andelen barnealdearen begi-bidezko ikuskapenak (hormena eta estaldurena) eta kubetetako detekzio-sistemen aldizkako kontrol sistematikoa, lurzorua kutsa dezakeen edozein egoerari aurrea hartzeko.

c) Goian aipatutako prebentziozko mantentze-lanen eskuliburuan, atmosferaren kutsadurari aurrea hartzeko eta zuzentzeko (arazketa, minimizazioa, eta abar) sistemen egoera ona bermatuko duten neurriak gehitu behar dira.

d) Era berean, erregistro bat eduki behar da, eta bertan, aldizka egindako mantentze-lanen berri eman behar da, baita antzemandako gorabeherena ere.

e) Besteak beste, disolbatzaileak, fosfatatze-produktuak eta pinturak eta beren hondakinak maneiatzeak lurzorua eta ura kutsa dezake. Beraz, isuriak, jarioak edo ihesak gertatzeko arriskua izan dezaketen lur zatien azalera guztiak iragazgaiztuko dira.

f) Prozesurako behar diren lehengaiak, erregaiak eta produktuak ingurunean ez sakabanatzeko moduan biltegiratuko dira.

g) Segurtasun-tarteei eta babes-neurriei dagokienez, egiaztatu egin beharko da biltegiratzeko instalazio horiek bete egiten dituztela produktu kimikoak biltegiratzeari buruz indarrean dagoen araudian ezarritako betebeharrak. Egiaztapen hori egiteko, Ingurumen Sailburuordetza honi aurkeztuko zaizkio eskumena duten erakundeek emandako egiaztagiriak.

h) Larrialdi-egoera sortzen denean, berehala eta eraginkortasunez jarduteko behar beste material eduki behar da: berriro ontziratzeko erreserbako edukiontziak, beharrezkoa izanez gero; gerta daitezkeen jarioei eusteko produktu xurgatzaile selektiboak, segurtasuneko edukiontziak, hesiak eta kaltetutako inguruneak isolatzeko seinaleztapen-elementuak eta babes pertsonalerako ekipamendu bereziak.

i) Pabiloien barruan zolak garbitzean sortutako ura tratamendu-lerrora bidaliko da.

j) Andel edo putzuen hondoan pilatzen diren solidoak ez dira ibilgura hustuko aldizkako garbitze-lanetan zehar; behar bezala kudeatuko dira edo zabortegi baimendura eramango dira.

k) Inoiz ez dira pilatuko euri-uren jariatzearen ondorioz ibilgu publikoko ura kutsatzeko arriskua egon daitekeen guneetan.

l) Larrialdi-egoeretan, babes zibileko legeriari helduko zaio, eta bertan ezarritako betekizun guzti-guztiak bete beharko dira.

m) Ingurunearen edo jardueraren kontrolaren gainean kalteak eragin ditzakeen gorabehera edo ez-ohiko gertaeraren baten aurrean (besteak beste, azaleko tratamendu-lerroan hausturak edo jarioak, ur-errezeldun pintura-kabinak gaizki funtzionatzea), enpresak gorabehera edo ez-ohiko gertaera horren berri eman beharko dio Ingurumen Sailburuordetzari.

n) Gertakari edo arazo larriren bat edo atmosferara ustekabeko isuriren bat eginez gero, Ingurumen Sailburuordetzari jakinarazteaz gain, SOS Deiak eta Udalari ere jakinarazi beharko zaie berehala. Ondoren, eta gehienez ere 48 orduko epean, ezbeharrari buruzko txosten xehatua bidali beharko da Ingurumen Sailburuordetzara. Txosten horretan, gutxienez, honako datu hauek agertuko dira:

- Gertakari-mota.
- Gertakaria non, zergatik eta zein ordutan gertatu den.
- Iraupena.
- Ustekabeko isuria izanez gero, emaria eta isuritako gaiak.
- Mailak gainditu badira, isurtzeei buruzko datuak.
- Eragindako kalteen balioespena.
- Hartutako neurri zuzentzaileak.
- Berriro gerta ez dadin aurreikusitako neurriak.
- Prebentziozko neurriak eraginkortasunez aplikatzeko ezarritako epeak.

o) Instalazioek suteen aurkako babesari buruz indarrean dagoen araudian ezarritako betekizunak betetzen dituztela egiaztatu beharko da. Egiaztapen hori egiteko, Ingurumen Sailburuordetza honi aurkeztuko zaizkio eskumena duten erakundeek emandako egiaztagiriak.

E) Baldin eta arautegi berria indarrean sartzeak, edo barneratzen diren sistemen egitura eta funtzionamenduari buruzko ezagutza berri esanguratsuetara egokitu beharrak hori egitea gomendatzen badute, neurri babesle zein zuzentzaileak eta ingurumena zaintzeko programa aldarazi ahal izango dira, bai neurtu behar diren parametroen kasuan, bai neurketaren aldizkakotasuna eta aipatutako parametroek hartu behar duten tarteari dagozkion mugen kasuan. Era berean, neurri babesle zein zuzentzaileak eta ingurumena zaintzeko programa, jardueraren sustatzaileak hala eskatuta, edo ofizioz, aldaraz daitezke, ingurumena zaintzeko programan lortutako emaitzetan oinarrituta.

F) Urtean behin Orona SK enpresak Ingurumen Sailburuordetzari jakinaraziko dizkio atmosferara eta uretara egindako isurtzeei, eta sortu dituen hondakinei buruzko datuak, E-PRTR-Euskadi, botatako eta eskualdatutako kutsagarrien Europako Inbentarioa landu eta eguneratzeko, apirilaren

20ko 508/2007 Errege Dekretuaren, E-PRTR Erregelamenduko eta ingurumeneko baimen bateratuetako isurketen gaineko informazioa ematea arautzen duenari jarraituz.

Informazio hori ekitaldi horren hurrengo martxoaren 31 baino lehen bidali beharko da. Informazioa Ingurumenari buruzko Adierazpenaren (IA) bidez gauzatuko da, hori baita kanpoko erakundeek eta Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak ingurumen-informazioa batak besteari elektronikoki emateko ardatza. Informazio-trukaketa horren funtsa Ingurumenari buruzko Adierazpenari (IA) dagozkion ingurumeneko datu teknikoak eta prozedurakoak sartzean datza, IKS-eeM Sistemako erakundeentzako bertsioaren bidez (www.eper-euskadi.net web orrian eskuragarri): Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saileko Ingurumen-informazioa Kudeatzeko Sistema. Datu horiek guztiek Ingurumenean Eragina duten Jardueren Euskal Autonomia Erkidegoko Erregistroa osatuko dute, Europako Ingurumen Agentziaren Erregistrora (Europako E-PRTR Erregistroa) egiten diren informazio-bidalketen oinarri dena.

Halaber, ebazpen honetan aurreikusitako gainerako informazio-trukeak aipatutako Ingurumenari buruzko Adierazpenaren bidez gauzatuko dira, ahal izanez gero.

Informazio hori agerikoa izango da, uztailaren 18ko 27/2006 Legearen xedapenekin bat etorriz. Lege horren bidez informazioa eskuragarri izateko, herritarren partaidetzarako eta ingurumen-gaietan justizia eskura izateko eskubideak arautzen dira (2003/4/EE eta 2003/2005/EE Zuzentarauak jasotzen ditu). Horrez gain, uneoro bermatu beharko da datu pertsonalak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa betetzen dela.

G) 2007ko apirilaren 21eko 509/2007 Errege Dekretuaren 4. artikuluko 3. atalari jarraituz, instalazioaren titularrek agintaritzari jakinarazi beharko diote instalazio horietan erabiltzen eta ekoizten diren substantziek, 1907/2006 EE Erregelamenduan erregistratu eta ebaluatzeko aurreikusitako prozesuan identifikatu direnak, giza osasunerako eta ingurumenerako izan dezaketen arriskua.

H) Ingurumeneko baimen bateratu honen eraginpeko instalazioan egindako aldaketek bat etorri beharko dute kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko 2002ko uztailaren 1eko 16/2002 Legeak 10.3 artikuluan ezarritako komunikazio-erregimenarekin. Hori horrela, ingurumeneko beste baimen bateratu bat beharko da aldaketak funtsezkoak direnean.

Hirugarrena.– Ebazpen hau eraginkorra izan dadin, aurretik Ingurumen Sailburuordetzari agiri bidez egiaztatu beharko zaio ebazpen honetako Bigarren ataleko puntu hauetan ezarritako baldintzak betetzen direla: B.1.3.1 f) eta B.1.3.2 c) (Hondakin arriskutsu eta ez-arriskutsuak onartzen dituzten agiriak); B.1.3.1 o) eta B.1.3.2 e) (Hondakin arriskutsu eta ez-arriskutsuen Erregistro Eredua); C.1 (Isuri atmosferikoen kontrola); C.1.1 (Isuri atmosferikoen erregistro-eredua); C.6 (Ingurumena zaintzeko programaren agiri bategina); D.1 (Mantentze-lanetan isurketa eta hondakinik ez dagoenaren justifikazioa); D.3 a) (Prebentzioko mantentze-lanetarako eskuliburua); D.3 g) (Produktu kimikoen biltegiratze-ziurtagiriak); D.3 h) (Larrialdi-kasuetarako materialen zerrenda); D.3 o) (Suteen aurkako babes-ziurtagiriak).

Halaber, baimen hau indarrean jarri aurretik, ingurumen organo honi atxikitako zerbitzu teknikoen ikuskaritza-bisitan egiaztatu beharko da instalazioak aurkeztutako proiektuaren arabera eta Ebazpen honetan ezarritakoarekin bat etorrita eraiki eta hornitu direla. Horretarako, aipatutako ikuskapen-bisitaren aurretik, sustatzaileak Ingurumen Sailburuordetza honetan aurkeztu beharko du baldintza horiek betetzen direla egiaztatzen duen agiria, teknikari aditu batek eginda.

Goiko baldintza horiek guztiak betetzeko 6 hilabeteko epea ezarri da, ingurumeneko baimen bateratua eraginkorra dela adierazteko Ingurumen Sailburuordetzak emandako ebazpen hau jakinarazten den biharamunetik kontatzen hasita.

Adierazitako baldintzak betetzen direla ziurtatzean, ebazpena emango da eta, horren bitartez, ingurumeneko baimen bateratua eraginkortzat aitortuko da.

Laugarrena.– Ingurumeneko baimen bateratu hau 8 urteko epean egongo da indarrean, aurreko atalean ezarritakoaren arabera ondorioak dauzkan egunetik kontatzen hasita. Epe hori igarota, baimena berritu egin beharko da eta, hala badagokio, jarraian datozen aldietarako eguneratu.

Ingurumeneko baimen bateratua amaitu baino hamar hilabete lehenago, titularrak baimena berritzeko eskaera egin beharko du, uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 25. artikuluan xedatutakoa betez.

Bosgarrena.– Edonola ere, ingurumeneko baimen bateratua ofizioz aldatu ahal izango da uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 26. artikuluan ezarritako kasuak aintzat hartuta.

Seigarrena.– Orona SK enpresak ebazpen honen xede den igogailu, karga-jasogailu, eskailera mekaniko eta antzekoen fabrikazio-jardueran titulartasun-aldaketarik eginez gero, aldaketa hori jakinarazi beharko du, Ingurumen Sailburuordetzak onar dezan.

Zazpigarrena.– Baimen honek balioa galduko du kausa hauek gertatzen direnean:

● Epearen barruan ez egiaztatzea ebazpen honetako Hirugarren atalean ingurumeneko baimen bateratuak ondorioak izan ditzan ezarritako baldintzak betetzen direla, interesdunak behar bezala justifikatuz epea luzatzeko eskatzen ez badu.

● Orona SK enpresaren nortasun juridikoa bukatzea, indarrean dagoen araudian ezarritako kasuetan.

● Baimena indarrean jartzen dela adierazten duen ebazpenean xedatutakoak.

Zortzigarrena.– Ebazpen honen edukia jakinaraztea Orona SK enpresari, Hernaniko Udalari, ingurumeneko baimen bateratua emateko prozeduran parte hartu duten erakundeei, eta gainerako interesdunei.

Bederatzigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea.

Hamargarrena.– Ebazpen honek ez du agortzen administrazio-bidea; horrenbestez, interesdunek gora jotzeko errekurtsoa aurkez daiteke Ingurumen eta Lurralde Antolamendu sailburuaren aurrean, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunean kontatzen hasita, hori guztia Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 114. artikuluarekin eta ondorengoekin bat etorriz (urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatu zuen lege hori).

Vitoria-Gasteiz, 2008ko apirilaren 30a.

Ingurumeneko sailburuordea,
IBON GALARRAGA GALLASTEGUI.